



NAFARROAKO GOBERNUKO PUBLIZITATE INSTITUZIONALAREN 2022. URTEKO PLANA

1. Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa izanen da Nafarroako Gobernuko publizitate kontratuak kudeatuko dituen unitatea, Publizitate Institutuzionalaren, Sare Sozialen eta Ikus-entzunezko Baliabideen Atalaren bidez eta publizitate ekintzak sustatzen dituzten unitateen lankidetzarekin.
2. Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa arduratuko da Nafarroako Gobernuko kanpainekin eta beste publizitate ekimen batzuekin lotutako sorkuntza enkarguak zentralizatzeaz.
3. Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledunaren Bulegoa arduratuko da publizitate kanpaina bakoitzeko bitartekoen plana diseinatzeaz (eskuragarri dagoen aurrekontuarekin hedapen handiena egiteko beharrezkoak diren publizitate espazioen kontratazioa), bere zehaztasunen arabera eta planaren hartzailak kontuan hartuta. Komunikabideekin kontratatuz gero, kontratatutako iragarki eta espazioen kopuruaren definizioa publizitate kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egingen da (1/2003 Foru Agindua, Tokiko Administrazioako kontseilariarena, Gobernuaren eledun den aldetik). Audientzien irizpide nagusia neurtzeko, Nafarroako 2021eko Audientzien Azterketa aplikatuko da, CIES SL enpresarena (komunikabideen, publizitate agentzien eta erakundeen finantzaketarekin egindakoa, tartean Nafarroako Gobernu bera).
4. Nafarroako hizkuntza ofizialak publizitate mezuetan erabiltzean, Komunikazio Zerbitzuak-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak, orokorrean, Nafarroako bi hizkuntza ofizialak erabiliko ditu bere publizitate mezuak diseinatu eta prestatzean.
5. Komunikazio Zerbitzuak-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak zainduko du, Nafarroako Gobernuko publizitate mezuak diseinatzean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dela, LGTBI+ kolektiboari ikusgarritasuna ematen zaiola, kulturarteko aniztasuna erakusten dela eta publizitate mezuen irisgarritasunari buruzko foru araudia betetzen dela.
6. Nafarroako Gobernuko ikurrak publizitate mezuetan erabiltzean, Komunikazio Zerbitzuak-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du, modu grafikoan edo lokutatuta, publizitate mezu guztietan, ikur ofizial hori eta haren erabilera arautzen duen urtarrilaren 7ko 4/2016 Foru Dekretuaren arabera. Gainera, Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu marka sartuko da Plan honetan aurreikusitako ekimenekin lotuta dauden kanpainetan.
7. Publizitate instituzionaleko kanpaina nagusizat joko dira publizitate espazioen kontratazioan 50.000 euroko zenbatekoa edo handiagoa dutenak. 2022rako, guztira 15



kanpaina planifikatu dira, aurreikusitako finantzaketa orokorra 1.008.000 eurokoa izanik.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak, indarreko aurrekontuko “Publizitate instituzionala” izeneko 060001 06120 2262 921500 partidaren korrelatiboa den 2022ko partidaren kargura, honako kanpaina hauek finantzatuko ditu, 510.000 euroko inbertsioarekin, betiere kreditu nahikoa eta egokia badago:

HASIERA EGUNA	KANPAINAREN ARRAZOIA	UNITATE SUSTATZAILEA	AURREIKUSITAKO INBERTSIOA
Otsaila	Eskola publikoa sustatzea	Hezkuntza Departamentua	70.000
Apirila	2020ko errenta aitortpenak aurkeztea	Ekonomia eta Ogasun Departamentua	70.000
Maiatza	Emakumeen artean STEM ikasketak (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) sustatzea	Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua	70.000
Ekaina	Klima aldaketaren kontra sentsibilizatzea – Navarra Green	Hainbat departamentu	70.000
Iraila	Gizarte eta lurralde kohesioaren gainean sentsibilizatzea	Hainbat departamentu	70.000
Urria	Nafarroa Suspertu Plana hedatzea	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	70.000
Azaroa	Nafarroaren Eguneko ekitaldien zabalkundea egitea	Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	90.000

Bestalde, hurrengo kanpainak unitate sustatzaileen aurrekontuen kargura ordainduko dira, 443.000 euroko inbertsioarekin:



HASIERA EGUNA	KANPAINAREN ARRAZOA	UNITATE SUSTATZAILEA	AURREIKUSITAKO INBERTSIOA
Urtarrila	Haur eta gazteen artean euskara sustatzea	Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	55.000
Martxo	Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna	Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua	60.000
Apirila	Merkatariaren ofizioa sustatzea	Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua	60.000
Maiatza	Droga kontsumoa prebenitzea	Osasun Departamentua	50.000
Uztaila	Programa kulturalen eskaintza sustatzea	Kultura eta Kirol Departamentua	53.000
Iraila	Euskara sustatzea helduen artean	Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	55.000
Urria	Gehiegizko pisua prebenitzea: elikadura eta kirola	Osasun Departamentua	60.000
Azaroa	“Gora Gora Fest” programaren zabalkundea egitea	Herritarrekiko Harremanetako Departamentua	50.000

8. Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak, indarreko aurrekontuko “Publizitate instituzionala” izeneko 060001 06120 2262 921500 partidaren korrelatiboa den 2022ko partidaren kargura, 40.000 euro gehiago gordeko ditu gobernuaren ekintza ez planifikatuarekin lotutako edo ezustean sortutako publizitatean inbertitzeko, betiere kreditu nahikoa eta egokia baldin badago.

9. Nafarroako Gobernuaren eta beren departamentuen partaidetza duten gizarte sareetan plangintza honetan jasotako kanpaina instituzionalen publizitatea gehiago zabaltze aldera, Komunikazio Zerbitzuak-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak 15.000 euroko partida espezifikoak edukiko du “Gizarte sareetako publizitatea” izeneko 060001 06120 2262 921503 indarreko partidaren korrelatiboa den 2022ko gastuen aurrekontuan, betiere kreditu nahikoa eta egokia baldin badago.

10. Era berean, Nafarroako Gobernuko departamentuek publizitate instituzionaleko beste kanpaina batzuk sustatzen ahalko dituzte, plangintza honetan jasotakoez



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Departamento de Presidencia, Igualdad,
Función Pública e Interior
Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio
Publikoko eta Barneko Departamentua

**Servicio de Comunicación - Oficina
de la Portavocía del Gobierno**
**Komunikazio Zerbitzua - Gobernuaren
Eledunaren Bulegoa**
Avda. Carlos III, 2-planta baja
Karlos III.a. etorb., 2-beheko solairua
31002 PAMPLONA / IRUÑA

bestelakoak, publizitate kontrataziorako aurrekontu kreditu egokien kargura. Enkargu horiek –ordezkoak izanen dira Plan honen 7. Puntuan jasotako kanpainen aldean– irailaren 30a baino lehen egin beharko dira, kasuan kasuko kanpainak 2022ko ekitaldian zehar hedatu ahal izateko. Abenduan publizitate ekintzak aurreikusten dituzten kanpainak 2023ko ekitaldiko aurrekontu kredituaren kargura finantzatuko dira.

11. Komunikazio Zerbitzuak-Gobernuaren Eledunaren Bulegoak Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko du Nafarroako Gobernuak 2022ko ekitaldian publizitate instituzionalean egindako inbertsioen betearazpenari buruzko txostena.